

UMIEN GAUZAK

Umiak euren gaixoak daukiez. Gaixo oneetariko bat argitaratu nai dot gaur, gurasoak jakin dagien zergaitik izaten dan, eta zelan osatu leiteken.

Lo dagozala umeak, sarritan pixa egiten dabe ogean. Gaixo au oso zabaldua da ume-artean, eta "enuresis" deitzen deutsagu medikuntzan. Egunero egunero ikusten dogu, geiago mutikoetan, reskatxatan baiño, ta batezbe famili pobreetan.

Enuresis daukan umeak, baten edo bitan edo geiagotan, erloju batek orduak joten dabezan lez, pixa egiten dau gabaz ogean. Eta bardin eguneko edozein lotan.

Batzuetan ametsetan egiten dau umeak pix egiten dagoala, ta benetan pix egiten dau ogean. Beste batzuetan olako ametsik barik bustiten dau ogea. Sarritan pix egiten dagozala itxartuten dira, edo ogea busti ta batera.

Itxartuten ezpadira, ta urrengo goizean lo-jantzia edo izarak busti-busti ikusirik, ikaratu egiten dira, baiña eurak eztakiela egiten dabe gixajoak.

Urte bi arte gaixo au fisiologikoa da, oso normala, baiño ortik gora ezkerro ez. Zanen gaixoa izan leiteke, edo puxikan irritabilidadea eukitea-gaitik, edo infeziñoren batengaitik. Sarritan ezta ezertxo be iñon aurkitzen. Izan leiteke giro edo ambiente otzana, ta udako berotan ondo dagozanak, egualdi txarrak etortzean, barriz, barriro asten dira ogea gaubean gaubean bustiten. Baliteke izatea, askotan, fenomeno onen explikazikoa, egualdi otzean ia danak pixa sarriago egin bearrean aurkitzen direalako.

Gaixo au aita-amentzat, eta baita umientzat-be, atsekabe aundikoa izaten da, ze olan ezin kolegioetan egon, edo iñoren etxean arazo aundia emoten dabelako.

Zelan, barriz, osatu gaixo au daukan umea? Ezta beti errez izaten. Gurasoai esan bear yake, zigorragaz eta burlaka txarrago izaten dala, ondo esanagaz eta leunkeriakaz, ostera, sariak eskiñiagaz-da, geiago irabazten dala.

Gabe guztietan, beti ordu batean, bat edo bi aldiz —geiagotan ez— umea itxartu egin bear dabe gurasoak, eta pix egiten ipifi.

Garbitasun aundia izan bear dabe partietan, irritaziñorik-ta ez deien izan.

Ume geldoa, trankilla, bada, itxasaldeko giroa komeni yako. Urduria, nerviooa bada, barriz, mendi-aldeko giroa. Lo egiteko oge gogorra, ta behe-aldeko anak buru-aldekoak baiño gorago euki deizala ogeak.

Regimen oso on bat dago olako gaixoa daukien umientzat:

Arrastirarte beti-lez jan deuela, baiña ordu bi edo iruretatik, ur-gauzarik ez emon umeari. Ogera doanean, gatz askoko aparia emon. Aperia aboko edo onetariko bokadillo klase bategaz egiña izan deitela: urdain-azpi —pernilla—, mantekilla gatzduna ogiagaz. Sardifña zarra, edo gatzetan ipiniriko antxoak eta mantekilla gatzduna ogiagaz. Arrautza egosiak.

Zenbat eta gaixoa gogorragoa izan, bokadillo oneik gatz geiagogaz emon bear yakez umeeri.

Olan ikusiko dozuez umeak lenengo gabean osatuta.

Gernikan, 1959.

ALDEKO.

